

347 eredua. Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortpena

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Aurkezteko epea

Urtero. Urte bakoitzeko otsailean aurkeztuko da, betiere aurreko urte naturalean egindako eragiketengatik.

Helburua

Bezeroekin eta hornitzaileekin egindako eragiketak aitortzen dira (bai ondasun emateak eta zerbitzu prestazioak, bai ondasun edo zerbitzu eskurapenak) eragiketa horiek 3.005,06 euroko kopurua gainditzen badute aitortpenaren xede den urte naturalean zehar. Zenbatekoa, hala badagokio, BEZ eta errekarquak barne hartuta zehaztuko da.

Jarduera ekonomikoarekin lotutako ohiko eragiketa arruntak nahiz noizean behingoak aitortzen dira, baita higiezinekin egindako eragiketak ere. Eragiketa horiek beti sartu behar dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuak izan ala ez; eta, lotuak badira, zerga ordaintzetik salbuetsita daudenak ere adierazi egin behar dira.

Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia
- Zeharkako Zerg., Eskualdaketen gaineko Zerg. eta Ingurumen Tributuko Kudeatzeko Zerbitzua

Nori zuzenduta

Pertsona fisiko edo juridikoak (publikoak zein pribatuak), eta jarduera enpresarial edo profesionalak burutzen dituzten entitateak, baldin eta beste pertsona edo entitate bati, batera hartuta, 3.005,06 euroko kopurua gainditzen badute (BEZ eta errekarquak barne), aitortpenaren xede den urte naturalean zehar.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[347 eredua](#)

Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

Internet bidezko eskaera

[347 eredua interneten bidez](#)

Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

Zuzeneko arretarako bulegoak

[Finantza entitate laguntzaileak](#), Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzua eta [Herritarren arretarako bulegoak](#).

ARAUDIA

[47/2013 Foru Dekretua](#)

[15/2022 Foru Agindua](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Informazio gehigarria

[347 eredua](#)